



**Zumaiako Udala**

**ZUMAI AKO UDALEAN ETA  
UDALERRIAN EUSKARAREN  
ERABILERA NORMALIZATZEKO  
UDAL-ORDENANTZA**

(2008ko azaroa)

*euskara  
txanpan*

# SARRERA

Errealitatearen eta indarrean dagoen legediaren arabera, Zumaiako berezko hizkuntza euskara da. Horregatik, Ordenantza honen helburua da, Zumaiako Udalean ez ezik, udalerrian ere euskararen normalizazioa bermatuko duten ondorio juridikoak garatzea. Herriko errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuta.

Lehenago ere onartu zen asmo bereko beste Ordenantza bat, 90eko hasieran, eta indarrean egon da harrezkero. Hala ere, egoera, antolamendua eta funtzionatzeko modua asko aldatu dira azken urteotan, zaharkituta geratu da Ordenantza hura erabat eta ez die gaur egungo premiei erantzuten. Horregatik, aurrekoa goitik behera aldatzea baino aproposagoa ikusi du Udalak berri hau lantzea.

Autonomia estatutuaren 6. artikuluari jarraiki, eta hizkuntza-alorrean garatzen duen legediari ere bai –funtsean 10/1982 Legea, azaroaren 24koa–, Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza euskara da; euskara eta gaztelania, biak hizkuntza ofizialak dira.

Horren guztiaren ondorioz, Zumaian ere bi hizkuntzak erabil daitezke balio juridiko osoarekin, mota guztietako harreman publikoetan zein pribatuetan. Ordenantza honek euskararen normalizazioa du xede, eta eraginkortasunez bermatu nahi du Zumaiako berezko hizkuntzaren erabilera erreala –eta ez bakarrik teorikoa–, herritarrek bi hizkuntza ofizialen artean aukera egin dezaketenean. Zumaiako biztanle guztiei bermatu behar zaizkie hizkuntza-eskubideak, eta Udalarekiko harremanetan ez da hizkuntza dela-eta inolako diskriminaziorik onartuko.

Beraz, udal izaera duen araudi honen oinarritzko helburua da Zumaiako administrazio eremuan, kultura-alorrean eta mota guztietako gizarte-harremanetan euskararen erabilera ahalbidetzea, sustatzea, erraztea eta bermatzea, euskararen normalizazioa erabatekoa izan dadin. Zumaiako udalerrian herritar guztiak edozein harremanetan edo gizarte-jardueratan euskaraz bizi ahal izatea da helburua, kontuan hartuta 2001. urteko azken biztanleria-eroldaren arabera Zumaian erroldatuta daude ia 9.000 biztanletik %80k baino gehiagok euskaraz badakiela.

Halaber, Ordenantza honek adierazten du Zumaiako Udalean eta haren menpeko erakunde eta sozietatean lan-hizkuntza euskara dela, baldin eta bertan aritzen den langileak lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatua badu.

Era bateko edo besteko arrazoiak tarteko, XX. mendean euskara baztertuta egon da udal-administrazioan eta harreman publikoetan, eta horregatik merezi eta behar du lehentasunezko trataera. Horrenbestez, Zumaiako udalerriko eremu guztietan herritar orok euskara erabiltzeko duen eskubidea sustatu eta bermatzea izango da Ordenantza honen helburu nagusia.

# LEHENENGO KAPITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

### **1. artikulua. Euskararen ofizialtasuna**

Euskara da Zumaiako udal-barrutiko eta haren erakunde publiko guztietako hizkuntza ofiziala, eta herritarrek erabili ahal izango dute, balio eta eraginkortasun juridiko osoz, mota guztietako harreman publikoetan zein pribatuetan. Herritarrei ezagutu eta erabiltzeko eskubide ukaezina dagokie.

### **2. artikulua. Berezko hizkuntza**

Euskara da Zumaiako berezko hizkuntza, baita haren erakunde publiko guztietakoa ere.

### **3. artikulua. Lehentasunezko tratamendua**

Berdintasunerako bidean eta herritarrek nahiz udal-langile euskaldunek euskara normaltasun osoz erabiltzeko aukera izan dezaten, lehentasunezko tratamendu berezitua emango dio Zumaiako Udalak euskarari.

### **4. artikulua. Herritarren hizkuntza-eskubideak**

Zumaiako Udalak, indarrean dagoen legeriak oro har onartutakoaren ildotik, honako hizkuntza eskubideak aitortzen dizkie herritarrei:

- a) Udalarekin, azpikontrataturako enprekin eta Udalaren menpeko erakunde guztiekin ahozko eta/edo idatzizko harremanak euskaraz izateko eskubidea, zerbitzuaren kalitatean murrizketarik izan gabe.
- b) Euskara erabiltzeko eskubidea, kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa, udal-barrutian diharduten enprekin, saltokiekin edo establezimenduekin harremanak izaterakoan. Eta hori, 6/2003 euskal Legearen arabera, baita Legea garatzen duen araudiari nahiz Ordenantza honi jarraiki ere.
- c) Udalaren argitalpenak eta Udalak, egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak, euskaraz hartzeko eskubidea.
- d) Udaleko edozein bileratan euskaraz aritzeko eskubidea.

### **5. artikulua. Aplikazio-esparrua**

Ezarpen orokorra izan dezaten, Ordenantza honetako xedapenen arabera erabiliko dute euskara Zumaiako Udalak eta haren erakunde autonomoek. Barne-funtzionamenduan, eta herritarrekiko edo erakunde guztietako harremanetan ere bai, azken helburua euskararen erabilera normalizatzea izango da.

Udalaren eskumeneko zerbitzu batzuk hirugarrenek egiten badituzte, edozein delarik ere horretarako kudeaketa-modua, haietan ere ordenantza hau aplikatuko da.

## BIGARREN KAPITULUA

### ***6. artikulua. Herritarrekiko harremanak***

Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoek herriko pertsona fisiko nahiz juridikoei zuzendutako komunikazio eta jakinarazpenetan euskaren erabilera bermatuta egongo da. Horretarako, euskara hutsezko inprimakiak erabiliko dira edota elebidunak direnean euskarari lehentasuna emango zaio.

Udalak izenpetzen duen kontratazio-dokumentu oro euskaraz idatzita egongo da.

Udalarekin harremana euskara hutsean eduki nahi duten herritarrei hori errazteko, neurriak hartu eta bitartekoak jarriko ditu Udalak. Horretarako, errolda edo zerrenda berezituak egin ahal izango ditu, edota dagokion eskabidearekin batera herritarrei hizkuntza hautatzeko aukera eman, erantzuna euskaraz edo ele bietan jaso dezaten.

### ***7. artikulua. Erakundeekiko harremanak.***

Euskara ofiziala den eremuan dauden beste Administrazio Publikoei nahiz erakunde ofizialei zuzendutako dokumentazioa euskaraz edo ele bietan euskara lehenetsita bidaliko du Zumaiako Udalak. Beste Administrazio Publikoek nahiz erakunde ofizialek Zumaiako Udalarari zuzendutako dokumentazioa, euskara ofiziala den eremutik datorrenean, euskaraz irits dadin eskatuko du Udalak.

### ***8. artikulua. Hornitzaileekiko harremanak.***

Zumaiako Udalak bere hornitzaileekin harremanak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, euskaraz izan daitezzen ahalegina egingo du eta besteak beste, faktura guztiak euskaraz helarazteko eskatuko du.

## HIRUGARREN KAPITULUA

### **BARNE-ERABILERA**

#### ***9. artikulua. Lan-hizkuntza***

Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera, herritarren zerbitzurako hizkuntza ez ezik, lanerako hizkuntza ere izango da euskara Zumaiako Udalean.

## **10. artikulua. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizunak**

1. Funtzio publikoari dagokion legediaren arabera, baita legedi hori garatzen duen araudiari jarraiki ere, udal-administrazioaren zerbitzuan jarduten duten langile-zerrendan, bertako lanpostu orori hizkuntza-eskakizuna esleituko zaio, ondoko helburuarekin: administrazio-unitate guztiek euskaraz lan egin eta zerbitzua euskaraz eman ahal izatea.

2. Udal-administrazioaren zerbitzuan jarduten duten langile guztiek, beraiei egokitutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko dute, dagokion lanpostua eskuratu edo beren lanpostuei atxikita jarraitu ahal izateko, legedi autonomikoarekin bat.

## **11. artikulua. Langile berriak izendatzea eta kontratatzea**

1.- Funtzionario izaera edo behin betiko nahiz behin-behineko izaera laborala duten lanpostuak betetzeko, euskara jakitea ezinbestekoa izango da kontratazio berrietan. Jakite-maila lanpostuaren ezaugarrien eta betekizunen arabera izango da. Zumaiako Udalak lanpostuak betetzeko egiten dituen deialdietan lanposturako eskatzen den euskara-maila baino jasoagoa kreditatzen duena merezimenduz baloratuko da.

2.- Zumaiako Udaleko lanpostuez jabetu ahal izateko langileak egiaztatu egin beharko du baduela gaitasuna lanpostu horren funtzioak euskaraz betetzeko.

## **12. artikulua. Zerbitzu publikoetako langileen hizkuntza-obligazioak.**

1.- Udal-administrazioan lan egiten duten langileek, baita Udalaren erakunde publikoetakoek nahiz menpeko sozietateenak ere, euskaraz egin behar du bere lana baldin eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta badute.

2.- Udal-administrazioan lan egiten duten udal-langileek, baita Udalaren erakunde publikoetakoek nahiz menpeko sozietateetakoek ere, herritarrei lehenengo hitza euskaraz egin behar diete. Baina herritarrak hizkuntza ofizial baten hautua egiten duenean, udal-langileak hizkuntza ofizial horretan erantzungo dio herritarrari.

## **13. artikulua. Udal-administrazioaren menpeko sozietate eta erakundeak**

Udalak kontratatutako bestelako langileek, enpresak zein norbanakoak, Udalean edo haren menpeko erakunde batean lanean arituz gero, euskaraz lan egiteko eskubidea bermatze aldera, kasu guztietan betetzen duten lanpostuaren ezaugarrien arabera euskara-maila egokia ziurtatu beharko dute, eta, hala badagokio, zerbitzua euskaraz emateko ezagutza-maila ere bai.

Enpresa kontzesiodunetan lan egiten duten langileek, edo zerbitzu publikoak emateko Udalak kontratatzen dituen enpresetakoek, zerbitzua udal-administrazioari eskatutako baldintza berberetan eman beharko dute.

#### ***14. artikulua. Udalaren hizkuntza-plangintza***

1.- Dagokion hizkuntza-plangintza abian jarriko edo egokituko da, ondoko helburuarekin: Administrazio-unitate guztiek euskaraz lan egin eta zerbitzua erabat euskaraz eman ahal izatea, udal-administrazioaren zerbitzuan jarduten duten langile guztiek beren lanpostuari egokitutako zereginak euskaraz bete ditzaten.

2.- Horretarako, besteak beste, langileen esku jarriko ditu Udalak beharrezko diren lexiko, hiztegi, terminologia zerrenda, aldizkari eta liburu bereziak eta gainerako dokumentu, inprimaki eta ereduak. Era berean, Euskara Zerbitzuaren aholkularitzaz ere baliatu ahal izango dira langileak.

#### ***15. artikulua. Udal-erregistroa***

1.- Euskaraz idatziko dira sarrera eta irteeren erregistro-liburua, urteko aurrekontu-liburua, baita Udaleko gainerako liburu ofizialak ere.

2.- Udaleko administrazio-erregistroan euskaraz inskribatuko dira Zumaiako erroldan aurkeztutako dokumentuak, baita Udalak berak igortzen dituenak ere.

#### ***16. artikulua. Udal-organoetako lan-hizkuntza***

1.- Udal-organo guztietako ohiko lan-hizkuntza euskara izango da, udalerriko berezko hizkuntza delako.

2.- Udal-organo guztien batzarretarako deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak eta proposamenak, baita informazio-batzordeen irizpenak ere, euskaraz jakinaraziko zaizkie hartzaileei. Dena den, hala eskatzen duten udal-organoetako kideei gaztelaniaz ere igorriko zaie dokumentazio guztia.

3.- Udal-organoetako bilerak euskaraz egingo dira. Dena dela, udal-ordezkaritzat hautatu diren organoetako kideek edozein hizkuntza ofizial erabil dezakete.

4.- Udal-organoek eskatutako txosten nahiz proiektu tekniko guztiak gutxienez euskaraz idatziko dira.

#### ***17. artikulua. Udal-organoetako aktak***

Udal-organo guztien bileretako akten jatorrizko testuak euskaraz idatziko dira. Dena dela, hala eskatzen duten udal-organoetako kideei gaztelaniara itzuliko zaie. Akta-liburu ofiziala euskaraz idatziko da.

### **18. artikulua. Ekitaldi publikoetako hizkuntza**

Zumaiako Udaleko kargu politikoeak, oso bereziki euskaraz jarduteko eragozpenik ez dutenek, euskaraz hitz egingo dute ekitaldi publikoetan Udalaren ordezkari gisa parte hartzen dutenean. Bi hizkuntza ofizialetan hitz egiten badute, lehenik euskaraz arituko dira.

### **19. artikulua. Hizkuntza-paisaia**

1.- Bulego eta langoletako errotuluak eta antzeko adierazleak euskaraz egongo dira.

2.- Paperen idazpuruak, gomazko zigiluak, tinbre zigilatuak eta antzeko beste elementuak euskaraz egongo dira.

3.- Udaletxeko eta Udalaren menpeko erakundeen egoitzetako errotulazioa euskaraz egongo da.

## LAUGARREN KAPITULUA

### **20. artikulua. Oharrak, argitalpenak eta komunikabideekiko harremanak**

Udalaren bandoak, araudiak, ordenantzak eta erabaki ofizial guztiak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira, eta euskarazkoak lehentasuna izango du.

Komunikabideetan argitaratzen diren iragarkiak euskaraz emango dira ezagutzera lehentasunez, eta gaztelania erabili behar denean euskarazko mezua lehenetsiko da.

Publizitatea egiteko garaian euskarazko hedabideak kontuan hartuko dira. Era berean, euskarazko herri-hedabideekin hitzarmenak egingo dira diru-laguntzak bideratzeko xedez.

## BOSGARREN KAPITULUA

### **21. artikulua. Udalerrian euskararen erabilera bultzatu eta normalizatzeaz**

Gizarte-bizitzaren bilakaeran, mota guztietako jardueretan euskara sustatzearren, Zumaiako Udalak egokitzat jotako neurriak abiaraziko ditu. Horren helburua da herritar orori erraztasunak ematea udalerriko berezko hizkuntzan bizi dadin.

Esparru sozioekonomikoa euskalduntzeko programa bereziak garatuko dira merkataritzan eta enpresetan euskararen erabilera areagotzeko.

Euskaraz dakitenak euskaraz bizi daitezen bultzatzeko asmoz, saio bereziak egingo ditu Udalak, haur, gazte eta helduentzat kultur eta aisia ospakizun bereziak euskaraz antolatuz.

Era berean, euskarazko sormena indartu eta euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko xedez, herritarrek euskaraz idatzitako lanak argitaratzeko laguntzak emango ditu. Horretarako, literaturaren inguruko zenbait ekintza antolatu edo diruz lagunduko dira.

Euskaraz ez dakitenek ikasteko erraztasunak izan ditzaten eta euskaldunak gero eta gehiago izan daitezen baliabideak jartzen lagunduko du Udalak. Besteak beste, herrian lanean ari den euskaltegiari lagunduz eta babesa emanez, eta herritarrei euskara ikasteko edo euskaraz dakitenak alfabetatzeko diru-laguntzak emanda.

## ***22. artikulua. Trafiko-seinaleak, toponimoak eta piktogramak***

1.- Zumaiako udalerriko kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta oro har toponimoak, Zumaiako Udalak finkatuko ditu bere eskumenen esparruan; betiere, toponimoen jatorria errespetatuz eta hizkuntza bakoitzaren grafia akademiko propioa erabiliz.

2.- Herri bideetako trafiko-seinaleak, obretako seinaleak eta abar gutxienez euskaraz idatzita egongo dira. Ele bietan ipini behar diren kasuan, euskarazko testua lehenetsiko da, nazioarteko arauak errespetatu eta ulergarritasuna bermatzearen kalterik gabe.

Ulergarritasuna piktograma bidez bermatu litekeen kasuetan, eta euskaraz eta gaztelaniaz oso antzeko grafia duten hitzak idazterakoan, euskarazko testua bakarrik izango dute seinaleek.

## ***23. artikulua. Interes orokorreko zerbitzuak ematen dituzten pertsona juridikoak***

Interes orokorreko zerbitzuak —besteak beste, garraioak, telekomunikabideak, eta energia-alorrekoak— ematen dituztenek, Zumaiako udal-barrutian, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatu beharko dituzte:

- a) Idatziz zein ahoz, gutxienez euskaraz harrera eginez eta erantzunez, baita beraien zerbitzuei buruzko informazioa emanez ere.
- b) Gutxienez euskaraz errotulatur euren lokalak, zerbitzuak eta argitalpenak.
- c) Gutxienez euskaraz eskainiz euren jarduerari dagozkion inprimakiak, oharrak, dokumentazioa, eskaintzak edo gainerako zerbitzuak.



Bestelako eskumenak eta betebeharrak dituzten erakunde batzuek ere eskubide horiek errespetatu dituzten ahaleginduko da Zumaiaiko Udala, esaterako, postan, justizian eta osasun-zerbitzuetan.

#### ***24. artikulua. Udalaren laguntzak, instalazio eta materialaren erabilera, eta baimenak.***

Gizarte-esparru guztietan euskararen presentzia eta erabilera gehitzeko xedez eta bere jarduketa-eremuan, neurri hauek betearaziko ditu Zumaiaiko Udalak:

1.- Kulturako, kirolak, gizarteko eta beste alorretako elkarteei laguntzak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontuan hartuko da. Ondorioz, Zumaiaiko Udalaren aldetik diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarteek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, diruz lagundutako jardueretan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo ele bietan euskara lehenetsita egin beharko dituzte. Era berean, ospakizun edo ekintzetan bozgorailu bidez euskara erabili beharko da, lehentasunez.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarari eman beharko zaio lehentasuna. Idatzizkoari dagokionez ere, aurkezten diren eskaera, memoria eta txosten oro euskaraz aurkeztu beharko dira.

Laguntzak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da hori guztia, diru-laguntza jasoko badute, hartzaileek derrigorrez bete beharko dutena.

2.- Udal-instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere, aurreko puntuan aipaturiko baldintzak bete beharko dira. Udalak, beraz, pilotalekua, hesiak, oholtzak eta beste edozein instalazio eta material erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntza baldintza horren berri emango die interesdunei, eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenatariko bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere.

3.- Herriko festetako barraketako idatzi eta iragarkiak, euskaraz emango dira ezagutzera lehentasunez, eta beraz, barrakak irekitzeko baimena emateko baldintzen artean, hori ere azalduko da, eta hala jakinaraziko zaie barrakadunei, eta fidantza itzuli aurretik baldintza hori bete den ala ez egiaztatuko beharko da.

4.- Kanpoko taldeek kalean edo herriko beste gune batzuetan antolatutako jarduerak eta ekitaldietan euskarak ahoz eta idatziz trataera egokia izan dezan zainduko du Zumaiaiko Udalak.

#### ***25. artikulua. Establezimenduetako erroterak***

Establezimenduetako erroteretan euskararen erabilera areagotzeko, Zumaiaiko Udalak diru-laguntzak emango ditu horiek euskara hutsez jartzeagatik.

Establezimendua irekitzeko baimenaren jakinarazpenarekin batera, artikulua honetan ezarritako diru-laguntzen berri emango zaie interesdunei, eta aldi berean errotuluak euskara hutsez jar ditzatela gomendatuko zaie.

Artikulu honetan xedatutakoa betetzeko, dohainik eskainiko ditu Udalak bere Euskara Zerbitzuaren itzulpen eta aholkularitza, eta horrela jakinaraziko zaie interesdunei.

## ***26. artikulua. Euskara hezkuntza alorrean***

1.- Zumaiako Udalak, eskola mundua eta eskola umeen arteko giroa euskalduntzeko jarduera osagarriak bultzatuko ditu. Hori guztia ikastetxeekin elkarlanean egingo da.

2.- Zumaiako Udalak, orain arte bezala, herriko ikastetxeetan euskara hutsezko ereduari eustearen alde egingo du. Ildo horretan, haurreskolatik hasi eta batxilergoa amaitu arte herriko umeek euskara hutsean ikasi ahal izatea bultzatuko du eta bere esku dagoen guztia egingo du hori bermatzeko.

3.- Zumaiako Udalak ikastetxeekin elkarlanean programak garatuko ditu kanpotik etorritako ume eta gaztetxoek euskara lehenbailehen eta errazago beregana dezaten, eta herriko hizkuntza, ohitura eta kulturaz jabetzen laguntzeko.

# SEIGARREN KAPITULUA

## ***27. artikulua. Udalaren hizkuntza-normalizaziorako azpiegitura***

Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako etorkizunean har daitezkeen neurri teknikoen zuzendaritza eta jarraipenaz, Udaleko Euskara Zerbitzua arduratuko da. Udaleko Euskara Batzordeak esandakoa kontuan hartu ondoren eta jasotako irizpideen arabera, erabakiak eta programak gauzatu beharko ditu.

Udaleko Euskara Batzordeari eta Udaleko gainerako organo politikoei dagokie, beraz, Udalaren hizkuntza-normalizaziorako erabakiak, proposatu eta eztabaidatu ondoren, onartzea. Hitz batez, Udalaren hizkuntza-politika definitzea.

Zumaiako Euskara Batzordeari dagokio, Ordenantza honen ezarpenaren jarraipenaz arduratzea, eta horretarako, besteak beste, ordenantza hauek betetzeko behar adina baliabidez hornituko du Euskara Zerbitzua.

Era berean, Euskara kontuetan aholkuak emateko batzorde bat egongo da, Zumaiaiko udalerrian euskararen normalkuntzako lanetan diharduten hainbat pertsona, elkarte, erakunde eta gizarte-esparrutako jendez osatua. Batzorde hori aipatutako eragileen eztabaidarako elkargunea izango da eta Udalaren hizkuntza-normalizaziorako jardunean aholku eman, ekintzak gauzatzen lagundu, jarraipena egin eta ebaluatzea izango du helburu.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

1- Zumaiaiko Udalak sortu eta/edo bultzatzen dituen programa guztietan hizkuntza-normalizazioko ikuspegia kontuan hartu beharko da. Horretarako, Udaleko Euskara Zerbitzuak ordenantza hauen berri emango die gainerako zerbitzu guztiei eta ordenantza betetzeko behar duten aholku eta laguntza ere eskainiko die.

2- Udalak onartutako gainerako Ordenantza eta xedapenek, ordenantza honetan jasotako xedapenak bereganatu egin beharko dituzte, beraiei dagokien guztian.

3- Udalak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Ordenantza honen emaitzen azterketa eta Ordenantza beraren berrikuspen orokorra egingo du indarrean sartu eta bost urtera, euskararen normalizazioari buruzko legedia edo arautegi orokorraren nahiz egoera soziolinguistikoaren aldaketaren ondorioz, edota bestelako edozein arrazoirengatik, lehenago berrikustea egoki ez baderitzo.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Baliorik gabe geratzen dira, Ordenantza honen maila berekoak edo txikiagoak izanik, Ordenantza honetan xedatutakoarekin bat ez etorririk, kontrajarrita dauden erabaki guztiak.

## **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza honen ezarpen eta garapenerako beharrezkoak diren xedapen eta programa berezi eta xehatuak erabaki eta bultzatuko dituzte Udaleko erakunde exekutiboek.